

## DISOLBAGARRITASUNA.- HAUSPEATZE ERREAKZIOAK: ERREPASOA

1.- 25°C-an , berun (II) ioduroaren disolbagarritasuna ur puruan 0,70 g/L-koa da.

- Kalkulatu ioien kontzentrazio maximoak disoluzio asean.
- Kalkulatu berun (II) ioduroaren disolbagarritasun biderkaduraren balioa, 25°C-tan.
- Kalkulatu eta azaldu berun (II) ioduroaren disolbagarritasuna potasio iodurotan 0,50 M den ur-disoluzio batean.

Datuak: Masa atomikoak Pb=207; I=127; K=39

(Em.  $1,52 \cdot 10^{-3}$  M;  $3,04 \cdot 10^{-3}$  M ;  $1,4 \cdot 10^{-8}$  ;  $5,6 \cdot 10^{-8}$  M)

2.- Bario sulfatoaren disolbagarritasun-biderkadura konstantea uretan  $1,1 \times 10^{-10}$  da 25°C-tan.

- Kalkulatu bario sulfatoaren disolbagarritasuna uretan 25°C-tan.
- Laborategian bario kloruro 0,005 M den disoluzio baten 200 mL-ri 600 mL 0,007 M den potasio sulfato disoluzio bat gehitu zaio. Bario sulfatoaren hauspeakina eratuko al da?.

Datuak: Masa atomikoak : Ba=137; Cl=35,5 ; S=32; O=16; H= 1; K=39.

(Em.  $1,05 \cdot 10^{-5}$  M ; BAI)

3.- Zilar sulfatoaren 0,93 gramo disolbatzen dira gehienez 200 ml-tan giro tenperaturan.

- Zein da zilar sulfatoaren disolbagarritasun biderkaduraren konstantea?.
- Zeintzuk dira ioien kontzentrazio minimoak zilar sulfatoa hasteko hauspeatzen?.
- Zer gertatuko da zilar sulfatoaren disolbagarritasunarekin, disoluzioan, 0,5 molarra den zilar ioduroa baldin badago?.

(Em.  $1,35 \cdot 10^{-5}$  ; 0,03M; 0,015M; TXIKITUKO DA)

4.-Zink hidroxidoaren disolbagarritasun-biderkadura  $2,2 \cdot 10^{-5}$  da 25°C-an.

- Kalkulatu zink hidroxidoaren disolbagarritasuna uretan, 25°C-an
- 500 ml zink kloruro 0,02 M eta 600 ml bario hidroxido 0,03 M nahasten direnean, hauspeatuko al da zink hidroxidoa?

Datuak: Masa atomikoak: H:1; O:16; Cl:35,5 ;Ag:108 ; S:32

(Em: 0,018M; EZ)

5.-25°C-an eztainu(II)kloruroaren disoluzio ase batek duen eztainu ioiaren kontzentrazioa  $1,6 \cdot 10^{-2}$  mol/l da. Kalkulatu:

- Eztainu(II)kloruroaren disolbagarritasun molarra.
- Eztainu(II)kloruroaren disolbagarritasun biderkaduraren konstantea 25°C-an.
- Disoluzio bat prestatzen da eta kloruro eta eztainu (+2) ioiak ditu, horien kontzentrazioak  $1,5 \cdot 10^{-3}$  mol/l eta  $2 \cdot 10^{-6}$  mol/l hurrenez hurren, eztainu(II)kloruroaren hauspeakina sortuko al da?.

(Em.  $1,6 \cdot 10^{-2}$  M ;  $1,64 \cdot 10^{-5}$ ; EZ)

6.-Zilar nitratoaren disolbagarritasun biderkaduraren konstantea  $1,7 \cdot 10^{-10}$  da 25°C-an.

- Kalkulatu zilar nitratoaren disolbagarritasun molarra.
- Disoluzio batek zilar ioiak ditu, horien kontzentrazioa 0,010 M izanik. Kalkulatu zein izan beharko duen nitrato ioiaren kontzentrazio minimoa , disoluzio honetan, zilar nitratoa hauspeatzen has dadin.
- Zilar nitratoa dagoenean 0,1M den zilar kloruroaren disoluzioan, zer gertatuko da bere disolbagarritasunarekin?

(Em:  $1,3 \cdot 10^{-5}$  M;  $1,7 \cdot 10^{-8}$  M; TXIKITUKO DA)